



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailak 6**

**Vitoria-Gasteiz, 6 de febrero de 2024**

## Lehendakaritza

### 2030 AGENDAREN LEHENTASUNEN EUSKAL PROGRAMAREN 2023KO BETETZE-MAILARI BURUZKO MEMORIA, LEGEGINTZALDIKO BALANTZEA ETA 2024KO LAN-PLANGINTZA AURKEZTU DIRA

- 2023ko abendura arte, 23 jarduketetatik 16 % 100ean bete dira, eta beste zazpi % 60tik % 80ra bitartean
- Etorkizun hurbilari begira, lehentasunezko hiru hobekuntza-eremu identifikatzen dira: energia berriztagarriak, erronka demografikoa eta dibulgazioa
- Legegintzaldiko Balantzeak hiru lorpen nabarmentzen ditu: gobernantza- eta aliantza-eredua, Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren egoitza eta ebaluazio-sistema
- Legegintzaldiaren ondare nagusia GJHen lokalizatorako euskal konpromisoaren eredua definitzea izan da: *"Now 2030 Basque Country"*
- Konpromiso hirukoitz batean oinarritutako eredua, 2030 Agendari dagokionez: instituzionalizazio, sozializazio eta pertsonalizazio gehiago
- Etorkizunean, GJHen gobernantza globalean estatuz azpiko gobernuek duten zeregina nazioartean defendatzen jarraitzearen garrantzia nabarmentzen da
- Haren rola funtsezkoa da, tokiko eta eskualdeko gobernuei dagokielako GJHak betetzearekin lotutako konpetentzien % 70

Gobernu Kontseiluak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren 2023ko Betetze-mailari buruzko Memoria, Legegintzaldiko Balantzea eta 2024ko Lan-plangintza ezagutu ditu gaur. Programa hori 2021eko ekainaren 29an onartu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren Legegintzaldiko plana da, GJHekiko konpromisoaren sailarteko eta erakundearteko koordinazioaren arloan.

#### 2023ko Memoria

2023ko Memoriak betetze-maila handia islatzen du. Aurreikusitako 23 jardueraildoetatik, 16 % 100ean bete dira. Zazpi jarduketa % 60 eta % 80 artean kokatzen dira, eta gehienak zazpi trakzio-konpromisoekin eta haien proiektu adierazgarriei dagozkie, hauen ibilbidea Legegintzaldi honetatik harago proiektatzen delarik.

Horrez gain, programa honen garapenari esker, hasiera batean aurreikusi ez ziren beste 13 jarduketa bultzatu dira, eta horien eragin-eremua zabaldu eta aberastu da. Horien artean, nabarmentzekoak dira Donostiako Zinemaldiarekin

izandako lankidetzan; enpresetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida; GJHen aldeko Euskal Aliantza, edo 18. GJHari egindako ekarpena, Kultura eta Hizkuntza Aniztasuna.

### **Legegintzaldiaren Balantzea**

Betetze mailarekin batera, Legegintzaldiko Balantzearen ondorio nagusiak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren baliagarritasuna islatzen du. Sailen arteko, erakundeen arteko eta gizartearen arteko sinergia sustatzen lagundu du, eta Euskadik GJHeekin dituen konpromiso zehatzen garapena eta betetze-maila hobetu du.

Balorazioa oso positiboa da, baina horrek ez du eragozten hobetzeko hiru eremu identifikatzea: energia berriztagarriak, erronka demografikoa eta dibulgazioa.

- ✓ Energia berriztagarriak. Berotegi efektuko gasen emisioa % 35,5 murriztu dugu, Europako batez bestekoa hobetuz. Hala ere, ez dugu aurrera egiten energia berriztagarriak sortzeko eta kontsumitzeko behar den erritmoan. Azken kontsumoa % 17koa da, eta EB-27ko batez bestekoa % 22koa. Hori da orain lehen helburua, eta horretara bideratzen dira Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legea eta Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala.
- ✓ Erronka demografikoa. Balantze demografikoak 2030 Agendaren eraldaketa sozialaren alderdiarekin lotura zuzenagoa duten GJHei eragiten die. Funtsezkoa da erronka demografikoari ahalik eta lehentasun handiena ematen jarraitzea. Erronka demografikoko eta emantzipazioko estrategiak, gazte-politikarekin batera, estrategikoak dira.
- ✓ Dibulgazioa. 2030 Agendari buruzko ezjakintasunak handia izaten jarraitzen du. Funtsezkoa da gizarte osoaren informazio- eta inplikazio-maila hobetzea. Asko dira helburu horrekin sustatzen diren jarduerak, baina oraindik ez dira nahikoak.

Era berean, Legegintzaldiko Balantzearen alderdirik positiboenean, hiru mugarri nabarmen daitezke, garrantzi instituzional berezia dutelako eta etorkizunean jarraitzeko asmoa dutelako:

- ✓ Gobernantza-azpiegiturak eta aliantzak. 2030 Agenda Euskadi Foroa, GJHen aldeko Euskal Aliantza, "2030 Agenda Euskadi Kontratu Sozial baterako" Adierazpena eta "Enpresetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida" azpiegitura berriak eta finkatuak dira, GJHekiko euskal konpromisoari jarraipena emateko euskarri direnak.
- ✓ Local 2030 egoitza. Nazio Batuen Local 2030 Koalizioaren Idazkaritzaren munduko egoitza Bilbon kokatzea, Euskadin lehen mailako nazioarteko erakunde bat jarrita. Eusko Jaurlaritzaren asmoa da GJHekiko konpromiso-eredu propio baten esperientzia eskaintzea lokalizazio-prozesuari.
- ✓ Adierazleen sistema, jarraipena eta balantzea. Sistema horrek hiru erreferentzian oinarritu da: adierazleen panela, urteko memoriak eta

Nazio Batuen Jarraipenerako Borondatezko Txostenak. Eusko Jaurlaritzaren proiektu nagusia izan da hori. Horren emaitza estrategiak eta jarduerak neurtzeko, aztertzeko eta berregokitzeko azpiegitura sendoa da.

Azkenik, Legegintzaldiaren ondare nagusia GJHen lokalizaziorako konpromiso hirukoitza duen euskal eredu bat definitzea eta eskaintzea da: 2030 Agendaren Instituzionalizazio gehiago, Sozializazio gehiago eta Pertsonalizazio gehiago. Ekarpen horri *Now 2030 Basque Country. GJHen lokalizaziorako euskal konpromisoaren eredu* deritzo.

### **2024ko Lan-plangintza**

Kontuan hartuta, alde batetik, nazioarteko testuinguru konplexua eta, bestetik, Euskadin hauteskundeak egiteko eta Legegintzaldia amaitzeko agertokia, honako hauek dira 2024rako Lan-plangintzaren helburu nagusiak:

- GJHekiko konpromisoaren dinamizazio- eta koordinazio-funtzioak garatzen jarraitzea, gobernantza-organoei arreta berezia eskainiz.
- Tokiko zein nazioarteko 2030 Agendaren lokalizazioarekiko konpromisoaren euskal eredu sustatzea, *Now 2030 Basque Country*.
- Nazio Batuen Local 2030 Idazkaritzaren egoitza Bilbon zabaltzeko eta hedatzeko prozesuan laguntzen jarraitzea, eta erakunde horrekin lankidetzan aritzeko bideak bultzatzea.
- Estatuz azpiko gobernuek GJHen gobernantzan zeregin garrantzitsuagoa izan dezaten nazioarteko foroetan defendatzen jarraitzea. Eginkizun hori funtsezkoa da, tokiko eta eskualdeko gobernuei baitagokie GJHak betetzearekin lotutako eskumenen % 70.
- 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren lehentasun-ardatzetan sakontzea: Dibulgazioa, Koordinazioa, Ebaluazioa eta Trakzio-konpromisoak eta Proiektu adierazgarriak.
- 2024-2028 plangintza estrategikoko dokumentu berri bat egitea eta onartzea, 2020-2024 Legegintzaldiko balantzea oinarri hartuta.

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK ETA UPV/EHUK INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEN ARRISKUA BALORATZEKO POLIZIA-TRESNA EGUNERATUKO DUTE**

- **Gizarte-psikologian aditua den talde batek indarkeria matxistaren gaur egungo inguruabarrei buruzko informazioak eta datuak bildu eta ikertuko ditu, biktima baten benetako arrisku-egoera zein den sakontasunez jakiteko**
- **Informazio hori polizia-sistemetara irauliko da, eta adierazle-sistema zehatz eta erabilerraz baten bitartez, euskal poliziek biktima bakoitzaren arriskua baloratu eta haren babes-neurriak hobetu ahal izango dituzte**
- **Ertzaintzaren *Emakumeak indarkeria matxistaren aurrean modu integralean babesteko plan estrategikoan* aurreikusitako proiektuetako bat da**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Segurtasun Sailaren *2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa*. Testu hori, urtero bezala, web-orrian argitaratuko da jendeak kontsultatu ahal izateko, eta argi eta garbi azalduko dira aurten Segurtasun Sailarekin lotutako elkarteek, erakundeek edo organismoek jasoko dituzten dirulaguntza guztiak.

Planak 14 jarduera-lerro barne hartzen ditu, eta horien artean nabarmentzen da, berritasun gisa, UPV/EHUK Ertzaintzarekin egingo duen lana indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arrisku-maila baloratzeko polizia-tresna berri bat lantzeko. Balorazioa modu zientifikoan egingo da, baina poliziak erraz erabili ahal izateko tresna bat izango da. Ikerketa-lan handi horretan Jaurlaritzak 440.000 euroko inbertsioa egingo du 2027ra arte; izan ere, tratu txar matxisten Euskadiko egungo errealitateari buruzko analisi zorrotza, zehatza eta sakona egin behar da, bai eta emakumeek biktima izateko duten arriskua baldintzatzen edo areagotzen duten faktoreei buruzkoa ere. Azken batean, indarkeria matxistaren mota eta profil guztiak modu sistematikoan eta berrituan ezagutu nahi dira biktimak babestu ahal izateko.

Lan hori egiteko, **Ismael Alberto Loinaz Calvok**, Psikologian doktorea eta Kriminologian lizentziaduna denak, UPV/EHUko Gizarte Psikologia Saileko ikerketa-talde bat lideratuko du, eta berez jada hasita dago gaur egun indarkeria matxista zein inguruabarretan gertatzen den jakiteko informazioak eta datuak biltzen. Aurrerago, informazio hori Ertzaintzak arriskua ebaluatzeko erabiltzen dituen sistemetara irauliko da eta Euskadiko udaltzainen eskura ere jarriko da, adierazle-sistema ahalik eta zehatzenaren bidez, poliziek emakume bakoitzaren arriskuak modu zehatzagoan baloratu ahal izan ditzaten, indarkeria-egoera larriak gertatzeko probabilitate handiagoa duten egoerak

kontuan hartu ahal izan ditzaten eta, modu horretan, biktima bakoitzaren behar espezifikoaren arabera, babes-neurri egokienak eta zehatzenak har ditzaten.

Tresna berriak nabarmen eguneratuko du egungo polizia-sistema, *Bikotekidearen kontrako indarkeria larriaren arriskua iragartzeko eskala* izenekoak. Bere garaian tresna hori ere UPV/EHUK diseinatu zuen eta Ertzaintzak 2007an jarri zuen abian. Tresna berriak jauzi kualitatibo bat eskainiko du, Euskadin gertatzen diren gizarte-errealitate eta indarkeria matxistaren forma berriak hartuko baititu kontuan.

## Istanbulgo Hitzarmena

Beste berritasun nagusietako bat da tresna berriak indarkeria matxistaren adierazleak Istanbulgo Hitzarmenarekin bat etorri txertatuko dituela polizia-lanean. Gainera, genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako delitu espezifikoek gainera, emakumearen aurkako indarkeria-modu ezberdinak ere izango dira kontuan: indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, zelata, sexu-jazarpena, emakumeen genitalen mutilazioa eta derrigorrezko ezkontza, abortua eta esterilizazioa.

Ekimen hori edozein eratako indarkeria matxista jasaten duten emakumeen egungo arreta hobetzen jarraitzeko Ertzaintza osatzen ari den *Emakumeak indarkeria matxistaren aurrean modu integralean babesteko plan estrategiko* berriko ekintzetako bat da. Lan hori Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzak gainbegiratu du, eta aurreikusten den urte anitzeko gastua honela banatuko da: aurten, 2024an, 100.000 euro, 2025ean 125.000 euro, 2026an 120.000 euro eta 2027an 95.000 euro.

## Gainerako diru-laguntzak

Berritasun horretaz gainera, *2024ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak* proiektuak finantzatzen jarraituko du Segurtasun Sailaren ardatz estrategikoen esparruan:

1. **Herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari borondatez parte hartzea sustatzea eta bultzatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da euskal sare horretan sartzea larrialdi-egoeretan pertsonen laguntza ematen edo ondasunak hornitzen lankidetzan aritzen diren erakunde guztiak:
  - ✓ Gurutze Gorria, 471.600 €
  - ✓ DYA, 155.000 €.
  - ✓ Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, 36.000 €
  - ✓ Euskal Espeleologoen Elkargoa, 15.000 €
  - ✓ Mendiko Euskal Federazioa, 25.000 €
2. **Informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa** itsasertzeko itsas-inguruneen plataformen bidez. Laguntza-lerro honi esker, Eusko Jaurlaritzak portuetan kokatuta dauden plataformetako, ur sakonetako buietako, kostaldeko radar-sareko eta kostaldeko bideometria-sistemako informazioa

biltzen du. Horren bidez, egin ditzake itsasoaren eta itsasertzaren portaerari buruzko aurreikuspenak, arriskuei buruzko iragarpenak, etab.

- ✓ AZTI Fundazioa, 195.000 €.
3. **Mugikortasun segurua eta iraunkorra sustatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da sentibilizazio-kanpainak abiaraztea zirkulazio-istripuak prebenitzeko, bai ikastetxeetan, bai bidean arriskua duten beste kolektibo batzuetan.
- ✓ AESLEME, Bizkarrezur Muineko Lesioak Ikertzeko Elkarte, 45.000 €
  - ✓ Baketik Fundazioa, 45.000 €
4. **Joko-adikzioen ondorio diren arriskuen prebentzioa.** Eusko Jaurlaritzak ludopatiari aurrea hartzeko, jokoarekin lotutako arriskuak murrizteko eta prebentzio-proiektuak lantzeko lanean ari diren erakundeen laguntza du.
- ✓ Ludopatiari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak abian jartzeko irabazi-asmorik gabeko Euskadiko elkarte pribatuen proiektuei laguntzeko deialdia, 100.000 €
  - ✓ UPV/EHU, Jokoaren Euskal Behatokiaren ikerketa-programa finantzatzeko, 100.000 €
5. **Kriminologia ikerketa eta ikasketa sustatzea.** Dirulaguntza publikoen ardatz honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren helburua da Euskadiko kriminalitatea hobeto ezagutzea, prebenitzea eta desagerraraztea. Gainera, arreta berezia eskainiko zaie gorroto-delituei, berdintasuna, tolerantzia eta elkarbizitzarekiko begirunea hedatzeko eta ezartzeko.
- ✓ UPV/EHU, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO katedra, 30.000€.
  - ✓ UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI), 125.000€
6. **Ertzaintzako langileek polizien eta suhiltzaileen jokoetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da kirol-esperientziak partekatzea, poliziako eta larrialdietako kidegoen arteko laguntasuna sustatzea eta, batez ere, forma fisiko onari eustea Ertzaintza barruan.
- ✓ Kirol-lehiaketetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak, 20.000 €

## Hezkuntza

### HEZKUNTZA SAILAK 2024ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Sail honen 2024 urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu du. Dokumentu honetan, lau Sailburuordetzek eta hamabi Zuzendaritzek kudeatzen dituzten dirulaguntza deialdi guztiak jasotzen dira, eta laguntza hauen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta eraginak ere zehazten dira.

Izaera programatikoa duen Plan hau Hezkuntza Sailaren politika antolatzeko tresna da, dirulaguntzen bidez, gizartearen intereserako den jarduera bat sustatzea jomuga duten jardun-arloetan. Era honetan, tresna honen bidez sailaren jardute-eremuan eraginkortasun maila areagotzea lortzeaz gain, gardentasuna sendotzea ere lortzen da.

Orotara, 123 dirulaguntza lerro jasotzen ditu Planak, eta 2024 urterako aurreikusitako horien guztien kopurua 209.870.022 eurokoa. 123 lerro horien artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, eskolatzeko beka eta laguntzak, unibertsitate-bekak, Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen mugikortasuna errazteko laguntzak edo ikertzaileen mugikortasuna laguntzeko deialdiak.

Era berean, Hezkuntza Sailaren dirulaguntza guztien artean leku garrantzitsua dute lehentasunezko jarduera-eremuetan sustatzen diren programa eta proiektuetara bideratutakoek, hala nola hezkidetzara, genero-indarkeriaren prebentziora, bake eta bizikidetzara, eleaniztasunera edo aniztasunarekiko arretara bideratutakoek, alde batera utzi gabe Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premiak dituzten ikasleei erantzuna ematen dieten programak, besteak beste.

Laguntza zerrenda luzean aipatzekoak dira, halaber, irakasleen prestakuntzara bideratuak, ikerketa sustatzeaz arduratzen direnak, Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ekipamendua eskuratzea helburu dutenak edo udal titulartasuneko eskoletan instalazioak egokitzeko asmoz deitzen diren dirulaguntzak, beste hainbatekin batera.



## Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politika

### JAURLARITZAREN KONTSEILUAK EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO 2022ko ZIFREN TXOSTENA ONARTU DU

- Dokumentu honek zifra demografikoak, ekonomikoak, lan-merkatukoak edo emakumeen aurkako indarkeriakoak biltzen ditu
- Aitatasun-baimenen eskaeren gorakada nabarmentzen da, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzen dekretua onartu zenetik

Gobernu Kontseiluak ["EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2022"](#) txostena onartu du gaur. Emakundek egindako dokumentu horrek emakumeek eta gizonen gizartean, ekonomian eta politikan duten egoeraren bilakaera ikusteko aukera ematen du. Txostenaren helburua da administrazio publikoei genero-desberdintasunei eta horien bilakaerari buruzko datuak ematea, politika publikoen oinarri diren diagnostiko zehatzak lortzeko. Dokumentuak zifra demografikoak, ekonomikoak, lan-merkatukoak edo emakumeen aurkako indarkeriakoak biltzen ditu. Informazio-iturri nagusia Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT) da.

Emakumeak EAEko biztanleriaren gehiengoa izaten jarraitzen dute, zehazki, % 51,5 dira. Hezkuntzari dagokionez, Lanbide Heziketan % 35 emakumeak dira, eta unibertsitate-ikasleak, berriz, euskal unibertsitateetan matrikulatutako ikasleen % 54 baino zertxobait gehiago.

Lan-merkatuan, gizonen eta emakumeen arteko okupazio-tasaren aldeak behera egiten du, nahiz eta gizonen aldeko 8,4 puntuko aldea dagoen oraindik.

Eta kontziliazio-neurriei dagokienez, beherezko joera ikusten da dagoen genero-arrailean. Txostenak familia-zaintzagatiko eszedentzien bilakaera erakusten du, sexuaren eta zaintza motaren arabera. Horrek adierazten du azken urteetan murriztu egin direla emakumeek eskatutako eszedentziak, bai kopuruan, bai ehunekoan, eta igo egin direla gizonen eskatutakoak.

Joera hori argien ikusi da familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretua indarrean sartzearekin batera. 2019an seme-alabak zaintzeko eszedentzien % 90 emakumeek eskatzen zuten, baina 2021ean ehuneko hori % 69,5era jaitsi da.

Emakumeen batez besteko errenta pertsonala gizonena baino txikiagoa da; zehazki, 2020an aldea 9.755 eurokoa izan zen. Emakumeen % 17,9k ez zuen inolako errentarik izan; gizonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 11ra jaisten da. Eta emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, genero-indarkeria jasaten duten emakumeen % 71k bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik jasaten dute, eta % 20k familiako beste pertsona batengandik. Adin, jatorri eta egoera ekonomiko eta sozial guztietako emakumeek jasaten dute indarkeria.

Eta 340 pertsona gehiagok jo du SATEVira (emakumeen aurkako indarkeriarako telefono bidezko arreta espezializatuko zerbitzua).

Gobernu Kontseiluak, gainera, [botere publikoen 2021eko jarduera-Memoria](#) onartu du, Emakundek ere egiten duena, botere publikoek berdintasunaren arloan egiten duten lanaren jarraipena egiteko. Txosten horretan nabarmentzen denez, berdintasunerako plangintzek ezarpen-maila oso altua dute, eta 107 plan instituzional erregistratzen dira autonomia erkidego, foru eta udal mailan. Gainera, 35.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute erakundeek berdintasunaren arloan antolatutako prestakuntza-ekintzetan.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **ELEBIDEK ETA ARARTEKOAK HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEEN ALDE LANEAN JARRAITZEKO AKORDIOA SINATUKO DUTE**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren Elebide-Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuak eta Arartekoak datozen lau urteetarako sinatuko duten akordioa. Bi erakundeek izenpetzen duten bigarren hitzarmena da gaur onartutakoa. Aurrekoa 2013. Urtekoa da.

Akordio honi esker bi erakundeak lankidetzan arituko dira herritarren hizkuntza eskubideen babesean. Elebidek eta Arartekoak sinatuko duten hitzarmena koordinazioan, elkarlanean, eraginkortasunean, elkarrekiko informazioan, elkarlaguntzan eta erakundeen arteko leialtasunean oinarrituko da. Horrela bi erakundeen helburua hizkuntza oinarri duen bazterkeriaren aurrean herritarrak babesteko elkarlana zehaztea eta egonkortzea da eta indarrean dagoen araudiak aitortutako hizkuntza eskubideen babesa sustatuko dute.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eta Arartekoak sei hilean behin bidaliko dizkie elkarri iritsi zaizkien kexak eta euskal herri administrazioen jardun eremuan hizkuntzagatik gerta daitezkeen bazterketen edo hizkuntza eskubideen urraketen gainean dituen informazioak. Partekatuko den informazio horrekin azterketa tekniko-juridiko bateratuak egingo dira ondorio komunetara iristeko. Informazio truke horretan ez dira inoiz datu pertsonalak erakunde batetik bestera transmitituko.

Elebidek eta Arartekoak sinatutako akordio berri honi esker hizkuntza-eskubideak sustatzeko eta horien inguruan kontzientziatzeko jarduerak ere antolatuko dira, hala nola, mintegiak, jardunaldiak, kanpainak edota prestakuntza jarduerak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 508.000 EURO BIDERATUKO DITU, AURREKO EDIZIOAN BAINO 154.000 EURO GEHIAGO, KULTUR SORKUNTZARAKO DEIALDIRA**

Gobernu Kontseiluak 2024ko kultur sorkuntzarako deialdia onartu du. Antzerki testuak, gidoi zinematografikoak, musika konposizioak, gazteei zuzendutako euskarazko testu literarioak, euskarazko ipuin eta eleberri laburrak eta koreografiak egiteko da deialdia. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 508.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara, hau da, aurreko edizioetan baino 154.000 euro gehiago. Zenbateko hori honela banatuko da:

- **108.000 euro euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako antzerki-testu originalak sortzeko.** Partida hori 9.000 euroko 12 laguntzatan banatuko da. 7 laguntza euskaraz idatzitako antzerki-testuentzat izango dira, eta 5 gaztelaniaz idatzitako testuentzat.
- **156.000 euro, euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako fikziozko, animazioko eta/edo dokumentaleko zinema-gidoiak sortzeko.** Partida 12 laguntzatan banatuko da, 7 euskarazko gidoiarako eta 5 gaztelaniazkoetarako, bakoitza 13.000 eurokoa.
- **82.000 euro partitura batean jasotako jatorrizko musika-konposizioak sortzeko** (pentagrama edo, musika elektroakustikoaren kasuan, kronograma edo interpretazio-plana).
- **54.000 euro 12 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako euskarazko literatura-testuak sortzeko.** 9.000 euroko 6 laguntza banatuko dira.
- **54.000 euro, gutxienez 100.000 karaktere dituzten euskarazko ipuin eta eleberri laburrak sortzeko.** Guztira, 9.000 euroko 6 laguntza banatuko dira.
- **54.000 euro koreografiak sortzeko.** 6 laguntza izango dira, bakoitza 9.000 eurokoa.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian kaleratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Presidencia

### **PRESENTADO LA MEMORIA DE CUMPLIMIENTO 2023, EL BALANCE DE LEGISLATURA Y EL PLAN DE TRABAJO 2024 DEL PROGRAMA VASCO DE PRIORIDADES DE LA AGENDA 2030**

- Hasta diciembre de 2023, de las 23 actuaciones contempladas, 16 presentan un cumplimiento del 100%; y otras siete, entre el 60 y el 80%
- De cara al futuro inmediato quedan identificados tres ámbitos de mejora prioritaria: energías renovables, reto demográfico y divulgación
- El balance de Legislatura destaca tres logros: el modelo de gobernanza y alianzas, la sede de Local 2030 de NNUU y el sistema de evaluación
- El principal legado de Legislatura es la definición del modelo de compromiso vasco con la localización de los ODS: *“Now 2030 Basque Country”*
- Un modelo basado en un triple compromiso de mayor institucionalización, socialización y personalización en relación con la Agenda 2030
- A futuro, destaca la importancia de seguir defendiendo internacionalmente el papel de los gobiernos subestatales en la gobernanza global de los ODS
- Su rol es fundamental porque corresponde a los gobiernos locales y regionales el 70% de las competencias relacionadas con el cumplimiento de los ODS

El Consejo de Gobierno ha conocido hoy la Memoria de Cumplimiento 2023, el Balance de Legislatura y el Plan de Trabajo 2024 del Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030. Este programa, aprobado el 29 de junio de 2021, es el plan de Legislatura del Gobierno Vasco en materia de coordinación interdepartamental e interinstitucional del compromiso con los ODS.

#### **Memoria 2023**

La Memoria de 2023 refleja un alto grado de cumplimiento. De las 23 líneas de actuación previstas, 16 están ya cumplimentadas al 100%. Siete iniciativas se sitúan entre el 60 y el 80% y se corresponden, en su mayor parte, con los siete Compromisos tractores y sus Proyectos emblemáticos cuyo recorrido se proyecta más allá de esta Legislatura.

Adicionalmente, el desarrollo de este programa ha permitido el impulso de otras 13 actuaciones, inicialmente no previstas, que han ampliado y enriquecido su ámbito de incidencia. Entre estas, pueden destacarse la colaboración con el Festival de Cine de San Sebastián; la Guía para desarrollar la Agenda 2030 en empresas y organizaciones; la Alianza Vasca por los ODS, o la aportación al ODS 18, Diversidad Cultural y Lingüística.

### **Balance de Legislatura**

Junto a su grado de cumplimiento, la principal conclusión del Balance de Legislatura refleja la utilidad de la herramienta del Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030. Ha contribuido a promover una sinergia interdepartamental, interinstitucional y social y ha mejorado el desarrollo y cumplimiento de los compromisos concretos de Euskadi con los ODS.

La valoración es muy positiva, lo que no impide identificar tres ámbitos de mejora: energías renovables, reto demográfico y divulgación.

- ✓ Energías renovables. Hemos reducido un 35,5% la emisión de gases de efecto invernadero, mejorando la media europea. Sin embargo, no avanzamos al ritmo necesario en generación y consumo de energías renovables. El consumo final se sitúa en el 17% y la media de la UE 27 es del 22%. Este es ahora el primer objetivo y a ello se orientan la Ley de Transición Energética y Cambio Climático y el Plan Territorial Sectorial de las Energías Renovables.
- ✓ Reto demográfico. El balance demográfico afecta a los ODS más directamente relacionados con la vertiente de la transformación social de la Agenda 2030. Es fundamental continuar dotando de la máxima prioridad a la respuesta al reto demográfico. Las estrategias de reto demográfico y de emancipación, junto a la política de juventud, adquieren carácter estratégico.
- ✓ Divulgación. El desconocimiento sobre la Agenda 2030 sigue siendo alto. Es fundamental mejorar el grado de información e implicación en el conjunto de la sociedad. Son numerosas las actuaciones que se promueven con esta finalidad; pero no son todavía suficientes.

Del mismo modo, en la vertiente más positiva del Balance de Legislatura pueden destacarse tres hitos por su especial relevancia institucional y su proyección de continuidad a futuro:

- ✓ Las infraestructuras de gobernanza y alianzas. El Foro Agenda 2030 Euskadi, la Alianza Vasca por los ODS, la Declaración “Para un Contrato Social Agenda 2030 Euskadi” y la “Guía para desarrollar la Agenda 2030 en empresas y organizaciones” representan infraestructuras nuevas y consolidadas que dan un soporte de continuidad al compromiso vasco con los ODS.
- ✓ La sede de Local 2030. La ubicación de la sede mundial del Secretariado de la Coalición Local 2030 de NNUU en Bilbao deja instalada en Euskadi una institución internacional de primer rango. La voluntad del Gobierno Vasco es contribuir al proceso de localización

ofreciendo la experiencia de un modelo propio de compromiso con los ODS.

- ✓ El sistema de indicadores, seguimiento y balance. Este sistema ha reposado en tres referencias: panel de indicadores, memorias anuales e Informes Voluntarios de Seguimiento ante NNUU. Este ha sido un proyecto central del Gobierno Vasco. Su resultado es una sólida infraestructura de medición, análisis y readaptación de estrategias y actuaciones.

Finalmente, el principal legado de la Legislatura es la definición y ofrecimiento, de un modelo vasco de triple compromiso con la localización de los ODS: más Institucionalización, más Socialización y más Personalización de la Agenda 2030. Esta contribución se denomina *Now 2030 Basque Country. Modelo de compromiso vasco con la localización de los ODS.*

### **Plan de trabajo 2024**

Teniendo en cuenta, por un lado, el complejo contexto internacional y, por otro, el escenario electoral y de finalización de la Legislatura en Euskadi, los principales objetivos del Plan de trabajo para 2024 son los siguientes:

- Continuar desarrollando las funciones de dinamización y coordinación del compromiso con los ODS, con especial atención a los órganos de gobernanza.
- Promover tanto local como internacionalmente, el modelo vasco de compromiso con la localización de la Agenda 2030, *Now 2030 Basque Country.*
- Continuar acompañando el proceso de apertura y despliegue en Bilbao de la sede Local 2030 de Naciones Unidas, así como impulsando cauces de colaboración con esta institución.
- Seguir defendiendo en los foros internacionales la promoción de un papel más relevante de los gobiernos subestatales en la gobernanza de los ODS. Su rol es fundamental porque corresponde a los gobiernos locales y regionales el 70% de las competencias relacionadas con el cumplimiento de los ODS.
- Profundizar en los ejes de prioridad del Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030: Divulgación, Coordinación, Evaluación, y Compromisos tractores y Proyectos emblemáticos.
- Elaborar y aprobar un nuevo documento de planificación estratégica 2024-2028 sobre la base del balance de la Legislatura 2020-2024.

## Seguridad

### EL GOBIERNO VASCO Y LA UPV/EHU ACTUALIZAN LA HERRAMIENTA POLICIAL DE VALORACIÓN DE RIESGO DE LAS VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA

- **Un equipo especialista en psicología social investigará y recopilará datos e informaciones sobre las circunstancias actuales en las que se produce la violencia machista para conocer, a fondo, la situación real de riesgo en que se puede encontrar una víctima**
- **Esa información se volcará en los sistemas policiales que, a través de un sistema de indicadores, preciso y de fácil manejo, permitirán a las policías vascas valorar el riesgo de cada víctima y mejorar sus medidas de protección**
- **Es uno de los proyectos previstos en el “*Plan estratégico protección integral a las mujeres frente a la violencia machista*” de la Ertzaintza**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “*Plan Estratégico de Subvenciones 2024*” del Departamento de Seguridad, un texto que, como todos los años, se publicará en la página web para su consulta pública y con total transparencia de todas las subvenciones que recibirán, este año, las asociaciones, entidades u organismos relacionados con el Departamento de Seguridad.

El plan incluye 14 líneas de actuación, entre las que destaca, como novedad, el trabajo de la UPV/EHU con la Ertzaintza para elaborar una nueva herramienta policial para valorar el nivel de riesgo de las mujeres que son víctimas de la violencia machista. La valoración se realizará de manera científica, pero la herramienta será de fácil manejo policial. Se trata de un arduo trabajo de investigación en el que el Gobierno invertirá 440.000 euros y que se extenderá hasta el año 2027, ya que implica un análisis riguroso, exhaustivo y profundo sobre la realidad actual del maltrato machista en Euskadi, así como de los factores que determinan o agravan el riesgo de las mujeres a ser víctimas. En definitiva, adquirir un conocimiento sistemático y renovado de los diferentes tipos y perfiles de la violencia machista para poder proteger a sus víctimas.

Para este trabajo, el Doctor en Psicología y Licenciado en Criminología, **Ismael Alberto Loinez Calvo**, lidera un equipo de investigación del Departamento de Psicología Social de la UPV/EHU, que ha comenzado, ya, a recoger datos e informaciones sobre las circunstancias en las que se produce la violencia machista en el momento actual. A futuro, esta información se volcará en los sistemas de evaluación del riesgo que utiliza la Ertzaintza y se facilitará a las policías locales de Euskadi para que, a través de un sistema de indicadores lo más preciso posible, las policías puedan valorar más certeramente los riesgos de cada mujer, tener en cuenta las situaciones que en las que haya una mayor



probabilidad de que se produzcan situaciones graves de violencia y, con ello, adoptar las medidas de protección más adecuadas y precisas según las necesidades específicas de cada víctima.

La nueva herramienta supondrá una actualización importante del actual sistema policial denominado “*Escala de Predicción de Riesgo de Violencia Grave contra la Pareja*” que fue, también, diseñado por la EHU/UPV y puesto en marcha por la Ertzaintza en 2007. Ofrecerá un salto cualitativo en la medida en la que contemplará nuevas realidades sociales y formas de violencia machista que se producen en Euskadi.

### **Convenio de Estambul**

Otra de las principales novedades es que la nueva herramienta incorporará al trabajo policial indicadores de violencia machista en consonancia con el Convenio de Estambul. Así, además de los delitos específicos de violencia de género y violencia doméstica, se tendrán en cuenta las diversas formas de violencia contra la mujer: violencia física, sexual y psicológica, el acecho, el acoso sexual, la mutilación genital femenina y el matrimonio, el aborto y la esterilización forzosos.

Esta iniciativa es una de las acciones del nuevo “*Plan estratégico protección integral a las mujeres frente a la violencia machista*” que está ultimando la Ertzaintza para continuar mejorando la actual atención a las mujeres que sufren cualquier forma de violencia machista. Este trabajo, que será supervisado por la Dirección de Coordinación de Seguridad, tiene previsto un gasto plurianual de 100.000€ este año 2024, 125.000€ en 2025, 120.000€ en 2026 y 95.000€ en 2027.

### **Resto de subvenciones**

Además de esta novedad, el “*Plan Estratégico de Subvenciones 2024*” continuará financiando proyectos en el marco de los ejes estratégicos del Departamento de Seguridad:

1. **Fomento y promoción de la participación voluntaria de la ciudadanía en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias.** El objetivo del Gobierno Vasco es incluir en esta red vasca a todas las entidades colaboradoras que trabajan para atender a las personas o procurar bienes en situaciones de emergencias:
  - ✓ Cruz Roja, 471.600 €
  - ✓ DYA, 155.000 €.
  - ✓ Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, 36.000€
  - ✓ Unión de Espeleología Vasca, 15.000€
  - ✓ Federación Vasca de Montaña, 25.000€
2. **Investigación destinada a obtener información oceánico-metereológica** a través de las plataformas ubicadas en el medio marino litoral. Gracias a esta línea de ayudas, el Gobierno Vasco capta la información de las

plataformas situadas en los puertos, las boyas de aguas profundas, la red de radares costeros y los sistemas de videometría costera. Con ella, puede realizar previsiones de comportamiento del mar, costa, predecir riesgos, etc.

- ✓ Fundación AZTI, 195.000€.

3. **Fomento de la movilidad segura y sostenible.** El objetivo del Gobierno Vasco es poner en marcha campañas de sensibilización para prevenir los accidentes de tráfico, tanto en centros educativos como en otros colectivos de riesgo vial.

- ✓ AESLEME, Asociación para el estudio de la Lesión Medular Espinal, 45.000€
- ✓ Fundación Baketik, 45.000€

4. **Prevención de los riesgos derivados de las adicciones al juego.** El Gobierno Vasco cuenta con las entidades que trabajan para prevenir la ludopatía, reducir los riesgos del juego y elaborar proyectos de prevención:

- ✓ Convocatoria de ayudas a proyectos de asociaciones vascas privadas sin ánimo de lucro para poner en marcha actividades de información y prevención de la ludopatía, 100.000€
- ✓ UPV/EHU para financiar el programa de investigación del Observatorio Vasco del Juego, 100.000€

5. **Fomento del estudio y de la investigación criminológica.** Con este eje de subvenciones públicas, el Gobierno Vasco quiere mejorar el conocimiento, la prevención y la erradicación de la criminalidad en Euskadi. Además, se prestará atención especial a los delitos de odio para difundir e implantar valores de igualdad, tolerancia y respeto a la convivencia.

- ✓ UPV/EHU, Cátedra UNESCO de Derechos Humanos y Poderes Públicos, 30.000€.
- ✓ UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI), 125.000€

6. **Fomento y promoción de la participación deportiva del personal de la Ertzaintza en juegos deportivos de policía, bomberos y bomberas.** El objetivo del Gobierno Vasco es facilitar el intercambio de experiencias deportivas, estimular la camaradería entre los diversos cuerpos de policía y emergencias y, sobre todo, motivar el mantenimiento de una buena forma física dentro de la Ertzaintza.

- ✓ Ayudas a las y los deportistas de la Ertzaintza que participen en campeonatos y juegos deportivos, 20.000€

## Educación

### **EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN APRUEBA SU PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES 2024**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, el Plan Estratégico de Subvenciones del Departamento de Educación para el año 2024. Este documento recoge la totalidad de las convocatorias de subvenciones gestionadas por las cuatro Viceconsejerías y las doce Direcciones del Departamento de Educación, y concreta los objetivos y efectos que se buscan con su aplicación.

El Plan, de carácter programático, se configura como un instrumento de planificación de la política del Departamento de Educación en las áreas de actuación que tienen por objeto el fomento de actividades de interés social, mediante la concesión de subvenciones. De esta forma, esta herramienta garantiza un incremento en los niveles de eficacia y eficiencia, así como el fortalecimiento de la transparencia en su ámbito de actuación.

Este Plan recoge un total de 123 líneas subvencionales, cuyo importe previsto para el año 2024 asciende a 209.870.022 euros. Entre estas 123 líneas destacan las becas y ayudas para la escolarización, las becas universitarias, aquellas destinadas a favorecer la movilidad del alumnado –tanto universitario como de Formación Profesional- o del personal investigador.

De igual manera, ocupan un lugar relevante entre todas las subvenciones del Departamento de Educación las dirigidas a programas y proyectos promovidos en los ámbitos de actuación prioritarios como la coeducación, la prevención de violencia de género, la paz y convivencia, el plurilingüismo o la atención a la diversidad, sin dejar de lado los programas que dan respuesta al alumnado con Necesidades Específicas de Apoyo Educativo, entre otros.

En la larga lista de ayudas se pueden citar, asimismo, las dirigidas a la formación del profesorado, las que se ocupan del fomento de la investigación, las que tienen por objeto la adquisición de equipamiento para centros de FP o las dirigidas al acondicionamiento de instalaciones escolares de titularidad municipal, entre muchas otras.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL INFORME DE CIFRAS SOBRE LA SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES EN LA CAE 2022

- **Este documento recopila cifras demográficas, económicas, de mercado de trabajo o de violencia contra las mujeres**
- **Destaca el aumento en las solicitudes de permisos de paternidad desde que se aprobó el decreto sobre ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el [Informe “Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en la CAE, 2022”](#), un documento realizado por Emakunde que permite ver la evolución de la situación de mujeres y hombres en el ámbito social, económico y político. El objetivo del informe es facilitar a las administraciones públicas datos sobre las desigualdades de género y su evolución, con el fin de obtener diagnósticos concretos en los que se sustenten las políticas públicas. El documento recopila cifras demográficas, económicas, de mercado de trabajo o de violencia contra las mujeres. La fuente principal de información es el Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) .

Las mujeres continúan siendo mayoría en la población vasca y, concretamente, representan el 51,5%. En lo que se refiere a la educación, en Formación Profesional, el 35% son mujeres, mientras que las alumnas universitarias representan algo más del 54% del alumnado matriculado en las universidades vascas.

En el mercado de trabajo, la diferencia de la tasa de ocupación entre hombres y mujeres desciende, aunque continúa existiendo una diferencia de 8,4 puntos, a favor de los hombres.

Y en cuanto a las medidas de conciliación se percibe una tendencia descendente en la brecha de género existente. El informe muestra una evolución de las excedencias por cuidado familiar según sexo y tipo de cuidado, que refleja una reducción en los últimos años de excedencias solicitadas por mujeres, tanto en número como en porcentaje, y un aumento en las tramitadas por hombres.

Donde se observa de forma más clara esta tendencia, es coincidiendo con la entrada en vigor del decreto 164/2019, de 22 de octubre, sobre ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral. Si en 2019, el 90% de las excedencias por el cuidado de hijas e hijos era solicitado por mujeres, en 2021 este porcentaje descendió al 69,5%.

La renta personal media de las mujeres es inferior a la de los hombres, concretamente en 2020 la diferencia fue de 9.755 euros. El 17,9% de las

mujeres no tuvo ningún tipo de renta, mientras que en el caso de los hombres este porcentaje desciende al 11%.

Y en lo que respecta a violencia contra las mujeres, el 71% de las mujeres que sufren violencia de género la sufren por parte de su pareja o expareja y el 20% por parte de otra persona de la familia. Sufren violencia mujeres de todas las edades, procedencias y situaciones económicas y sociales. Y aumenta en 340, el número de personas que han recurrido al SATEVI (servicio de atención telefónica especializada para violencia contra las mujeres).

El Consejo de Gobierno ha aprobado además la [Memoria de actuación de los poderes públicos 2021](#), que también realiza Emakunde para hacer un seguimiento de la labor de los poderes públicos en materia de igualdad. En este informe se destaca que las planificaciones para la igualdad tienen un grado de implementación muy alto registrándose 107 planes institucionales a nivel autonómico, foral y municipal. Además, más de 35.000 personas han participado en las acciones formativas en igualdad organizadas desde las diferentes entidades.

## Cultura y Política Lingüística

### **ELEBIDE Y EL ARARTEKO FIRMARÁN UN ACUERDO PARA SEGUIR TRABAJANDO POR LOS DERECHOS LINGÜÍSTICOS DE LA CIUDADANÍA**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el acuerdo que firmarán el Servicio de Garantía de los Derechos Lingüísticos del departamento de Cultura y Política Lingüística y el Ararteko para los próximos cuatro años. El convenio aprobado hoy es el segundo que suscriben ambas instituciones tras el firmado en el 2013.

Gracias a este acuerdo ambas instituciones colaborarán en la protección de los derechos lingüísticos de la ciudadanía. El convenio que firmarán Elebide y el Ararteko se basará en la coordinación, la eficacia, la información recíproca, la colaboración y la lealtad institucional. El objetivo de ambas instituciones es definir y estabilizar la colaboración en la protección de la ciudadanía frente a la discriminación lingüística y que promoverán la protección de los derechos lingüísticos reconocidos por la normativa vigente.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y el Ararteko se remitirán semestralmente las quejas que les hayan llegado, así como las informaciones sobre posibles discriminaciones o vulneraciones de derechos lingüísticos en el ámbito de actuación de las administraciones públicas vascas. Con esta información compartida se realizarán análisis técnico-jurídicos conjuntos para llegar a conclusiones comunes. En ningún caso en este intercambio de información se transmitirán datos personales de una entidad a otra.

Gracias a este nuevo acuerdo firmado entre Elebide y el Ararteko también se organizarán actividades para promover y concienciar sobre los derechos lingüísticos, como seminarios, jornadas, campañas o actividades formativas.

## Cultura y Política Lingüística

### EL GOBIERNO VASCO DESTINA 508.000 EUROS, 154.000 EUROS MÁS QUE LA EDICIÓN ANTERIOR, A LA CONVOCATORIA DE CREACIÓN CULTURAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la convocatoria de 2024 para la creación cultural. La convocatoria está dirigida a la realización de textos teatrales, guiones cinematográficos, composiciones musicales, textos literarios en euskera dirigidos a la juventud, cuentos y novelas cortas en euskera y coreografías. El departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 508.000 euros a esta convocatoria, es decir, 154.000 euros más que en anteriores ediciones. Este importe se repartirá de la siguiente manera:

- **108.000 euros para la creación de textos teatrales** originales escritos en euskera o castellano que se distribuirán en 12 ayudas de 9.000 euros cada una. Serán 7 ayudas para textos teatrales escritos en euskera y 5 para textos en castellano.
- **156.000 euros para la creación de guiones cinematográficos de ficción, animación y/o documental**, escritos en euskera o castellano. La partida se repartirá en 12 ayudas, 7 para guiones en euskera y 5 en castellano, de 13.000 euros cada una.
- **82.000 euros para la creación de composiciones musicales** originales plasmadas en una partitura (pentagrama o, en el caso de música electroacústica, cronograma o plan de interpretación).
- **54.000 euros para la creación de textos literarios en euskera dirigidos a las personas jóvenes de entre 12 y 18 años**. Se distribuirán 6 ayudas de 9.000 euros cada una.
- **54.000 euros para la creación de cuentos y novelas cortas en euskera** con un mínimo de 100.000 caracteres. En total se repartirán 6 ayudas de 9.000 euros cada una.
- **54.000 euros para la creación de coreografías**. Serán 6 ayudas de 9.000 euros cada una.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.